

dFERIA 2020, Pasioa-La pasión Balantzea

Ferriak aurreko urteetako zifrei eutsi die. Esan gabe doa, Coronavirusaren larrialdi egoerak eragina izan duela, baina, batez ere, agerikoa izan da dFeriaren azken egunetan. Ikuskizun bakar bat geratu da bertan behera Coronavirusaren eraginez; hain zuzen ere, Fabio Liberti italiarraren *Don't, kiss*.

dFERIAko XXVI. edizio honetan, 32 konpainien, 32 ikuskizun eta 42 emanaldi programatu dira zortzi eszenatokietan: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Club, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Intxaurren K.E., Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera), Tabakalera-Patio eta Convent Garden-Cripta, kale antzerkiak gain.

7000 lagun inguruk eszenatokietan programatutako emanaldiez gozatu ahal izan dute, batez besteko okupazio maila %77koa izan da. Orokorrean Feria honetan, ikuskizunetako publikoa eta jarduera paraleloetako parte-hartzaileak aurreko urtekoaren antzekoak izan dira.

Nobedadeen artean aipatzekoa da publiko berriei ireki nahi izan dela, horrexegatik, publiko gazteari zein haurrei (Tutik Clowns konpainiaren 25. urteurrena ospatzeko) zuzendutako hainbat antzezlan programatu dira. Gainera, azken urteetan eskaera handia izan duen jarduera profesionala berreskuratu da: Negozio foroa, arrakasta handiz burutu dena. Bestetik, iaz bezala abonua eta mauka interesgarriak izan dira alde aurretik erosi dutenentzat.

Kopuruei dagokionez, ikuskizunen erdia baino gehiago (%56) dFERIAN estreinatu da, modu batean edo bestean. Horietatik, %47a dantza izan da, beste %47 antzerkia eta %6a diziplina anitzak.

Akreditatuen kopuruari dagokionez, 519 profesional etorri dira guztira. Hala, iazko kopurua %3,88 jaitsi da: 196 programatzaile, 66 banatzaile, 155 ekoizle eta konpainien ordezkari, 46 erakundeetako ordezkari, 16 kazetari eta kritikari eta bestelako 40.

Nazioarteko konpainien jatorria: Argentina, Eslovenia-Frantzia, Venezuela eta Mexiko.

Aipatzekoa da dFERIAN, beste urte batez, Brasil, Costa Rica, Ekuador eta Mexikoko nazioarteko programatzaileak izan direla, gonbidatu gisa, Acción Cultural Española (AC/E) bere Programa para la Internacionalización de la Cultura Española (PICE)-ren bitartez egindako lankidetzari esker.

Jarduera profesionalean honako hauek izan dira partehartzeak:

- Euskadiko Antzokien SAREaren Batzarra: 51 lagun
- Onda Cero-ren zuzeneko emanaldia: 25 lagun
- Ongi Etorri ofiziala: 200 lagun
- Eclat work in progress estreinaldia: 200 lagun
- MANIFIESTO RED ESPAÑOLA" aurkezpena: 200 lagun
- SAREA-Euskadi Antzoki SAREaren bazkaria: 51 lagun
- Euskadi Irratia- Radio Euskadi-ren zuzeneko emanaldia: 20 lagun
- Negozio foroen konpainiekin prestaketa bilera: 45 lagun
- Europako programatzaile eta konpainien arteko topaketa: 14 lagun

- Europako programatzaile eta konpainien arteko hitzorduak: 20 lagun
- Eskena batzarra: 20 lagun
- Negozio foroa: 200 lagun
- ARTEKALE batzarra: 14 lagun
- Karrika / Hameka batzarra: 11 lagun
- Arte Eszenikoen Akademiaren txostenaren aurkezpena: 12 lagun
- Arte Eszenikoen sektoreko topaketa: 8 lagun
- dFERIA autobusa: 900 lagun
- Neurrira egindako topaketak: 120 lagun
- Goizeko topaketa gunea: 1400 lagun
- Gaueko topaketa gunea: 900 lagun
- dFERIAko prentsaurrekoak: 450 lagun
- PRO bideratzaileak: 700 lagun
- dFERIArekin solasaldiak TABAKALERAN: 105 lagun

dFERIAKO NOBEDADEAK

Aurtengo nobedadeen artean hiru nabarmendu daitezke.

Batetik, programazioa publiko berriei zabaldu dela, bereziki gazte eta nerabeei zuzendutako ikuskizunekin.

Bestetik, profesionalei zuzendutako jardueren artean Negozio Foroa berreskuratu dela, arrakasta handiz. Honela, eskaera handia duen jarduera berreskuratu da, profesionalen arteko elkar ezagutza errazten duena, hain zuzen ere. Negozio foroa proposamen berriak ezagutzeko tresna izan da, itxurazko denboran eta ahaleginak optimizatuaz. Hau, Neurrira egindako topaketekin batera, profesionalen arteko harremana handitzea ekarri du.

Azkenik, Tabakalera eszenatoki bezala berreskuratu da, bi ikuskizun bertan programatuaz: La Tristuraren *Future Lovers* eta Marga Altolaguirreren *Pantheon*.

PROGRAMAZIOA

Guztira, 32 konpainien, 32 ikuskizun eta 42 emanaldi programatu dira, eszenatoki zein kale antzerkiko antzezlanak kontutan hartuta. Horietatik, % 56 modu bateko edo besteko estreinaldiak izan dira:

Estreinaldi orokorrak: Igor Calongeren *Reverso*; Marga Altolaguirreren *Pantheon* eta Hutsun&Ortiziren *Urbasa*

Estreinaldiak Europan: Sharon Fridman-en *Dosis de Paraíso*, Seguidor de Pléyades-en *Más de 45.000* eta Ay Sí Sí Sí-ren *24 de septiembre, casi casi primavera*.

Estreinaldiak estatuan: *Dream*, Cécile Julien Lestel eta *Perdón*, Sutottos.

Estreinaldiak Euskal Herrian: *Picnic on the moon*, *Llego tarde*; *Future Lovers*, La tristura; *Amiga*, Tribueña; *Próximo*, Timbre 4; *Cuando todo cambia (clic)* Teatro Calderón & Fran Ávila, *Los cuerpos celestes*, Marco Vargas & Chloé Brûlé, *Ya no seremos*, Ángel Rojas Flamenco Dance Project, *Coneja*, Esperanza Pedreño eta *Manuelita*, Popelei.

Aurtengo euskarazko emanaldi hauek izan da:

- Petitxou** (Tutik Clowns)
- Gauekoak** (Kukai Dantza)
- Biz Hitza** (Aukeran Dantza Konpainia)

Bestetik, dFERIAren ondorengo ostiral eta larunbatean programatutako Pez Limboren *Harri orri ar*-en emanaldiak bertan behera geratu ziren.

ONDORIOAK

dFERIAren azken edizio hau arrakastatsua izan da konpainien maila artistiko handiari esker, Arte Eszenikoen sektoreak feriarekiko erakutsi duen atxikimenduari esker eta publikoaren harrera bikainari esker.

Aipatzekoa da, Coronavirusaren krisialdiaren eragina agerikoa izan dela dFERIAren ere, nahiz eta gehienbat azken egunetan nabarmendu. Zentzu honetan, esan beharra dago nazioarteko zazpi programatzaileek eta estatu mailako hogeita hiruk azken unean ez etortzea erabaki zutela. dFERIAren hirugarren jardunaldian, berriz, 15 programatzaileek alde egin behar izan zuten, gehienak Madrilgoak. Azken jardunaldian, berriz, programatzaile eta konpainia askok euren itzulera aurreratzea erabaki zuten, Covid-19k sortutako osasun krisialdiaren norabidea ikusita.

Salbuespen egoera alde batera utzita, aipagarria da aurkeztutako ikuskizunen kalitate handia, euskal antzerkiaren eta dantzaren mailaren erakusgarri, bai ikusleentzat, bai komunikabideentzat, bai profesionalentzat. Beste edizioetako kopuruak gainditzeko baldintzak eman dira, baina nabarmena izan da salmenten beherakada hirugarren eta laugarren egunetan.

Nabarmenezkoa da, halaber, aurten ere nazioarteko aintzatespena lortu duten zenbait artista eta ikuskizun izan ditugula gure artean. Duela zenbait edizio finkatutako erronka guztiak gainditu dira, eta, hala, kalitatezko programazio berritzailea eskaini da, eta orekatua, dantza eta antzerkiari begira. Guztion artean –sektorea, administrazioak, prentsa eta ikusleak-, ezagutzera eman dugu dFERIAk egiten duen lana antzerki eta dantzaren arloa sustatzen eta bistaratzen. dFERIAk ahalbidetu dituen eta oraindik ere ahalbidetuko dituen salerosketen aurreikuspen-datuei begira ere, baikorrak izateko motiboa dugu.

Atzerritik etorritako zenbait profesionalak, bestalde, berriz ere interes handia azaldu dute euskal antzerkia eta dantza beren herrialdeetan programatzeko.

Negozio-foroek profesionalak elkar ezagutu dezaten ahalbidetzen dute, eta proiektu eta ikuskizun berriak sustatzeko aukera eskaintzen dute. Ezinbestekoa iruditzen zaigu lan-ildo hori jorratzen jarraitzea, elkar lanerako eta merkataritza-trukerako bideak zabaltzeko.

Ildo horretan, azokak aurten ere bi bideratzaileen lana izan du; izan ere, bitartekari-lanak egin dituzte elkar ezagutzen ez zuten profesionalak harremanetan jartzeko eta haien arteko topaketak bideratzeko. dFERIA pixkanaka-pixkanaka gora doa, gero eta profesional gehiagok parte hartuko du bertan, eta, horregatik, bitartekaritza-lana gero eta beharrezkoa izango da.

Amaitzeko, zinez eskertu nahi ditugu azken urteetan lankide izan ditugun administrazio-erakundeak: **INAEM**, **Eusko Jaurlaritza** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**. Halaber, ezin aipatu gabe utzi **KUTXA**, **SGAE Fundazioa**, **Etxepare Institutua**, **Nafarroako Gobernua**, **COFAE** (Coordinadora de Ferias de Artes Escénicas del Estado) **REDELAE** (Red Eurolatinoamericana de Artes Escénicas) eta **AC/E** (Acción Cultural Española bere PICE Espainiar Kultura Nazioartekotzeko Programaren bitartez, atzerriko 6 profesionalak izan dute edizio honetan parte hartzeko aukera Bisitariak modalitatean) erakundeen ezinbesteko lankidetzak.

Urtero bezala, bereziki eskertu nahi dugu euskal antzerki eta dantza konpainien partehartze aktiboa, oro har, eta, zehazki, Euskal Antzerki eta Dantza Konpainien Elkartearena (**Eskena**), Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearena (**ADDE**) eta Euskal Aktoreen Batasunarena (**EAB**), hala nola **Artez aldizkari**arena.

Bestetan bezala, haiek guztiek euren alea jarri dute aurtengo edizioa aurrera eramateko, eta ahalegin berezia egin dute, besteak beste, baita ekonomikoki ere.

Esker ona adierazi nahi diegu, halaber, komunikabideei eta bertako profesionalei dFERIAri emandako babesagatik, eta, azkenik, eta batez ere, publikoa eskertu nahi dugu: izan ere, azken urteetako joera jarraituz, haiei esker ikuskizun-aretoak beteago daude urtetik urtera, eta hori ezinbesteko erronka eta akuilu bihurtzen da etorkizuneko edizioak antolatzeari begira.

dFERIAREN XXVII. EDIZIOA

dFERIAren hurrengo edizioa, **2021eko martxoaren 15a eta 18a** bitartean izango da.

dFERIA 2020, Pasioa-La Pasión BALANCE

La feria mantiene las cifras de años anteriores. Obviamente, la crisis del coronavirus ha tenido incidencia en el transcurrir de la misma, sobre todo, se ha dejado notar en la última jornada de dFERIA. Tan solo hubo una compañía que no pudo llegar a dFERIA: la italiana Fabio Liberti con su pieza *Don't, kiss*.

En la XXVI edición de dFERIA participaron 32 compañías con 32 espectáculos y 42 funciones programadas en ocho escenarios: Teatro Victoria Eugenia, Victoria Eugenia Club, Teatro Principal, Gazteszena (Egia), Intxaurren K.E., Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera), Tabakalera-Patio y Convent Garden-Cripta, además del teatro de calle.

Cerca de 7000 espectadores pudieron disfrutar de los espectáculos programados con un nivel de ocupación del 77% de media. En general, los datos de esta edición de dFERIA mantienen las cifras de años anteriores tanto en lo referente a público como a los profesionales acreditados.

Entre las **novedades** cabe destacar la apertura de la feria a nuevos públicos con la programación de teatro infantil (para celebrar los 25 años de la compañía Tutik Clowns) y de varias obras dirigidas a un público joven. Además, se ha recuperado la organización del Foro de Negocios una actividad profesional muy demandada en los últimos años y que se ha cerrado con gran éxito. Por otra parte, la compra anticipada ha contado con interesantes descuentos a través de varios tipos de abonos.

En lo referente a las **cifras**, más de la mitad de los espectáculos se han estrenado en dFERIA de una manera u otra. Del total de espectáculos el 47% ha sido danza, otro 47% teatro y el 6% restante multidisciplinar.

El número de personas acreditadas ha descendido ligeramente con respecto a 2019, en total han venido 519 profesionales. Así, se ha producido un descenso del 3,88%. De ese total, 196 han sido programadores, 66 distribuidores, 155 productores o representantes de compañías, 46 instituciones, 16 periodistas y críticos y 40 de otros sectores.

Las compañías extranjeras en dFERIA han venido de Argentina, Eslovenia-Francia, Venezuela y México.

En las actividades profesionales el nivel de participación se desglosa así:

- Asamblea SAREA: 51 personas
- Programa en directo de Onda Cero: 25 personas
- Bienvenida oficial: 200 personas
- Estreno del *work in progress* Eclat: 200 personas
- Presentación del "Manifiesto Red Española": 200 personas
- Comida SAREA: 51 personas
- Programa en directo de Euskadi Irratia- Radio Euskadi: 20 personas
- Reunión de preparación del Foro de Negocios con las compañías: 45 personas
- Encuentro entre programadores europeos y compañías: 14 personas
- Citas entre programadores europeos y compañías: 20 personas
- Asamblea Eskena: 20 personas
- Foro de Negocios: 200 personas
- Asamblea ARTEKALE: 14 personas

- Asamblea Karrika / Hameka: 11 personas
- Presentación del informe de la Academia de las Artes Escénicas: 12 personas
- Encuentro del sector de las artes escénicas: 8 personas
- Autobús dFERIA: 900 personas
- Encuentros a la Carta: 120 personas
- Punto de encuentro diurno: 1400 personas
- Punto de encuentro nocturno: 900 personas
- Ruedas de prensa dFERIA: 450 personas
- Facilitadoras PRO: 700 personas
- Diálogos con dFERIA en TABAKALERA: 105 personas

NOVEDADES DFERIA

Entre las novedades de esta edición cabe destacar tres.

Por un lado, la programación se ha abierto a nuevos públicos, especialmente a un público más joven.

Por otra parte, se ha recuperado el Foro de Negocios, con importante éxito. Los y las profesionales demandaban una actividad que les permitiera conectarse mejor. El Foro de Negocios ha posibilitado conocer nuevas propuestas en un tiempo muy razonable, economizando los esfuerzos. Esto, junto con los Encuentros a la Carta, cierra el círculo y permite que dFERIA facilite muchos contactos entre los y las profesionales.

Por último, Tabakalera se ha vuelto a convertir en escenario dFERIA con la programación de dos espectáculos: *Future Lovers* de La Tristura y *Pantheon* de Marga Altolaguirre.

PROGRAMACIÓN

En total se han programado 42 funciones de 32 espectáculos con presencia de 32 compañías, teniendo en cuenta los espectáculos de calle y lo programado en escenario. El 56% de la programación ha sido estrenada en dFERIA de una forma u otra.

Estrenos generales: *Reverso*, Igor Calonge; *Pantheon*, Marga Altolaguirre y *Urbasa*, Hutsun&Ortzi.

Estrenos en Europa: *Dosis de Paraíso*, Sharon Fridman; *Más de 45.000*, Seguidor de Pléyades; *24 de septiembre, casi casi primavera*, Ay Sí Sí Sí.

Estrenos en el estado: *Dream* de Cécile Julien Lestel y *Perdón* de Sutottos

Estrenos en Euskal Herria: *Picnic on the moon*, Llego tarde; *Future Lovers*, La tristura; *Amiga*, Tribueñe; *Próximo*, Timbre 4; *Cuando todo cambia (clic)* Teatro Calderón & Fran Ávila, *Los cuerpos celestes*, Marco Vargas & Chloé Brûlé, *Ya no seremos*, Ángel Rojas Flamenco Dance Project, *Coneja*, Esperanza Pedreño y *Manuelita*, Popelei.

En esta edición ha habido cuatro espectáculos en euskara:

- **Nola heldu gara honetara?** (Erre produkzioak)
- **Petitxou** (Tutik Clowns)
- **Gauekoak** (Kukai Dantza)
- **Biz Hitza** (Aukeran dantza Konpainia)

Por otra parte, las funciones en euskera *Harri orri ar* de Pez Limbo programadas el viernes y sábado posteriores a la feria no se representaron.

CONCLUSIONES

Esta última edición de dFERIA se ha cerrado con éxito gracias al alto nivel artístico y de organización y a la decisiva e imprescindible implicación del sector de las artes escénicas, junto con la respuesta del público.

Obviamente, la crisis del coronavirus ha tenido incidencia en el desarrollo de dFERIA, sobre todo en los dos últimos días de la feria. En este sentido, hay que mencionar que siete programadores internacionales y veintitrés nacionales declinaron asistir a la feria en las semanas previas a su celebración. En la tercera jornada de la feria 15 programadores se vieron obligados a volver a sus lugares de origen, la mayoría de ellos de Madrid. El último día de dFERIA la gran mayoría de profesionales y compañías quisieron adelantar su regreso visto el cariz que tomaba la crisis del Covid-19.

Dejando a un lado la excepcionalidad de las circunstancias, cabe mencionar que las expectativas de público y de profesionales que se han acercado a dFERIA se han visto cumplidas. Se hubieran superado con referencia a otras ediciones pero ha sido palpable el descenso en las ventas durante el tercer y el cuarto día.

La calidad de los espectáculos presentados ha sido más que destacable, ofreciendo una muy buena imagen del teatro y la danza vasca entre público, prensa y profesionales. Es reseñable también la presencia en dFERIA de espectáculos y artistas con reconocimiento internacional.

Se han cumplido así todos los retos planteados para conseguir una feria con una programación novedosa, de calidad, de autor y equilibrada en cuanto a disciplinas artísticas se refiere.

Entre todos -sector, administraciones, prensa y público- hemos escenificado la importancia de dFERIA como apoyo a la creación y visibilización de la danza y el teatro. Las previsiones y expectativas en las ventas que surgen y surgirán a partir de dFERIA también inducen al optimismo.

Varios profesionales venidos de países extranjeros han vuelto a mostrar gran interés en programar producciones vascas y han explicado sus planes de futuro en sus respectivos países.

Las ruedas de negocios ayudan y fomentan el contacto y el conocimiento entre los profesionales facilitando la promoción de espectáculos o de nuevos proyectos. Consideramos una labor importante brindar más oportunidades para la colaboración y el comercio.

En este sentido, el trabajo de las dos facilitadoras al servicio de los acreditados de la feria ha sido muy importante también como mediadoras entre las partes, y facilitadoras de encuentros o reuniones entre distintos agentes. dFERIA va creciendo paulatinamente, se incorporan profesionales jóvenes o noveles y cada vez, es más necesaria una labor de mediación y ayuda entre ellos.

Finalmente, es de agradecer la colaboración de las instituciones que apoyan y han apoyado a dFERIA en los últimos años. Sin su ayuda dFERIA no sería lo que es hoy día.

Se trata del **INAEM, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa**, así como la colaboración especial de **KUTXA**, la **Fundación SGAE, Instituto Etxepare, Gobierno de Navarra, COFAE** (Coordinadora de Ferias de Artes Escénicas del Estado), **REDELAE** (Red Eurolatinoamericana de Artes Escénicas) y de **AC/E** (Acción Cultural Española a través de su Programa para la Internacionalización de la Cultura Española-PICE en la modalidad de Visitantes por el que seis profesionales extranjeros han podido estar presentes en esta edición).

Pero sobre todo, es destacable la implicación de las compañías de teatro y danza vascas, en general, y de **Eskena** (Asociación de Empresas de Teatro y Danza vascas), **ADDE** (Asociación de Danza de Euskadi) y **EAB** (Euskal Aktoreen Batasuna) en particular, además de la **revista Artez**.

Todos ellos aportan, una vez más, ideas para la definición de esta edición apoyándola en todo aquello que pueden y se siguen comprometiendo también económicamente con la feria.

Por último, agradecemos también a los medios de comunicación y a sus profesionales la cobertura ofrecida a la feria, y sobre todo al público, que continuando la tendencia ascendente de ocupación de las salas de los últimos años, nos ayuda a poner más empeño en la realización de ediciones futuras de dFERIA.

XXVII EDICIÓN DE dFERIA

La próxima edición de dFERIA será del **15 al 18 de marzo de 2021**.